

Intelektuala telebistari begira

T ELEBISTA INTIMITATEAN. Bidaia antolatua izan arren, eguna nor bere aldetik pasatu genuen Kopenhagen, izan Christianian barrena, izan Hans Christian Andersen bizi izandako etheen peskizan, edota NyHavn kai aldeko kafe etxeetako terrazetan, berogailuen goxotasunera, bezeroentzako prest zeuzkaten tapaki laukidun koloretsuak magalean zabaldurik. Baina hain zuzen ere bidaia antolatua zelako, bidaiari guztiok gaua hotel berean eman genuen. Gelara erretiraturik, kasik automatikoki, sofan luze-luze etzan, aldagailua hartu, eta Danimarkako telebista kateen ikusmiran hasi ginen: beti da hezigarria bes-teren bizimoldeen berri izatea, esate batera, ikusi ahal izatea filmak urruti horietan bert- sio originalean eskaintzen dituz- tela —asko jota, danierazko azpiti- tuluekin—; aldiz, ordu txikietakoko film pornoetan ez zegoen eskand- inaviarren artean halako joera edo postura bereziturik —ezta azpiti- tuluen beharrik ere...—. Eta bidaia antolatua zelako, eta biha- ramunean Oslorako autobusa hartu behar genuelako, goizean denok jaitsi ginen jantokira gosari legea egitera, eta orduan zabal- du zen hotsa: film pornoak iku- siak zituztenek harrera gelatik igaro beharra zeukaten extra hori ordain- tzeraz, eta



ZALDI ERO

orduan, irri fir-fira maleziatsua ezpainen- eta kezka poltsikoetan, aho ttikiarekin edo agerian, onartu behar izan genuen denok ala denok ere aritu ginela, aritu, film pornoak ikusten. Autobus gidaria, baina, berandu jai- tsi zen eta albisteak begiak arranpalo utzi- zuten: gaua lokartu ezinik igaro zuela, den- bora pasa telebista piztu zuela..., eta, gaine- ra, ze arraiol!, film bakarra eman zutela gau osoan zehar, errepika eta errepika. Gidariak hoteleko arduradunei gure kexua azaldu eta, akaberan, inortxok ere ordaindu beharrik ez izatea lortu zuen. “Zuk bakarrik ordaindu behar duzu”, adierazi zion gidariari irriz karkailaka.

Eta pornoa izan, zaborra izan, edo pro- grama hezigarriak izan, argi dago etxe gehienetan usadio bera nagusi- tzen dela iluntzero (inkestek, bes- talde, ezin argiako erakusten dute zeintzuk diren programarik iku- sienak gurean, bihotz ustezkoak alegia). Euskal Herriko erreality- tea gogorra omen, eta gordina, eta ihesbidea behar, antza. Kan- poeder halakook, ahobeteka alda- rrikatzen ditugu irakurketaren onurak eta bat egiten dugu —batik bat— idazleren batek adierazten duenean telebista gaur egungo

zinezko arerioa dela eta, hura garaitu edo porrokatu ezean, literaturarenak egin duela. Alabaina, etxeko intimitatean, nekea dela, irakurgai egokia falta dela, aukeran, telebis- taren aldagailua hartzea nahiago. Benedetti- ren *Amodio bat* ipuin hiperlabur hartan beza- la, harrikoa egin bitartean edo zereginak amaitu bitartean, egongelan uzten dugu haurra, pantailari begirik kendu gabe, pan- tailari atxikia. Eta gero haur hori bera da, gazte delarik, eskolan xalo aitortzen duena nahiago duela liburu oso bat koadernoan, baina telebistaren aurrean, idatzi, hitzez hitz, lerroz lerro osorik idatzi ere, hura irak- urri baino. *C'est la vie.*

AZKARTASUNA BEREHALAKOTASUNA. Aldagai- lua erabiltzeko hiru molde bereiz omen dai- tezke: “zappinga”, hau da, iragarkien tar- tean gainerako kateak gainbegiratzea;



Argi dago etxe gehienetan
iluntzero telebista pizteko usadioa
nagusitzen dela



irudiak:
Antton Olariaga



Azkartasuna eta klikamenduan
oinarritutako gizartean,
nola egin erakargarri berez
pausatua den irakurketa?



“flippinga”, produktoreak gehien beldur-
tzen dituen, eta programa ikusi bitartean
katea aldatzean datzana; eta “grazinga”,
hau da, aldi berean programa pare bat
jarraitzea. Hortik segitzen da, aldagailua
molde batean edo bestean erabili arren,
edonola ere azkartasuna dela nagusi. Edu-
kiak eta istorioak bazter utzirik, azkartasun
hori marrazki bizidunetatik beretik edaten
dute hurrek —eta zarata: zergatik ote dira
haurrentzako saioak hain zalapartatsuak?—;
horrekin batera, dena hain azkar gertatzea-
ren poderioz eta programak adinka sailkatu
gabe egotearen eraginez —eta haurrak salan
aparkaturik jarraitzen duenez—, oso litekee-
na da haurrak ongi pasatzea filmean edo
marrazkietan zer pasatu den ongi
ulertu gabe, hau da, ezer askorik
ulertu gabe ere saioari dibertiga-
rri iriztea, eta jokamolde hori
bere bizimoldera zabaltzea, hau
da, eskolan —eta bizitzan zehar—
dena azkar eta ongi ulertu gabe
bizitzera ohitzea. Eta hona gal-
deretako bat: haur denboratik
beretik dena hain azkar pasatze-
ra ohiturik, arreta biltzeko ezin-
tasunarekin, nola egin erakarga-
rri itxuraz hain pasiboa eta
pausatua den irakurketa? Nola
ulertu ahalegin berezia eskatzen duten tes-
tuak? Azkartasuna, berehalakotasuna...
Zentzu honetan, Milan Kunderak “Mate-
matika existentziala” aipatzen du, eta hone-
la azaltzen: zenbat eta azkarrago bizi,
orduak eta gehiago ahanzten ditugu, dela
iragana, dela tradizioa, eta unearen kontsu-
mitzaile huts bilakatzen gara, unean uneko-
arena.

ERREALITATE TELEBISATUA. Azkartasunare-
kin batera, errealitateari buruzko halako
ikuspegi lausoa sortzea ere gerta daiteke.
Espainiako *La bola de cristal* haur programa



ospetsuaren
gidoilari izan zen Santiago
Alba Ricok, argitaratu berria
duen *Leer con niños* liburua dela eta,
honela dio: “Arriskua errealitatea serio ez
hartzean datza, eta dena denbora pasa huts
bihurtzean, hala nola teleberri batean Abu
Ghraibeko torturetatik Cibeles Pasarelara
bereizketarik egin gabe igarotzen gare-
nean”. Bere analisisian, bestalde, gidoilari
ohiak gaineratzen du errealista dela eta hala-
ko programa “subertsiborik” nekez emititu
litekeela gaur egun. “Trantsizioko lehen
urteetan behin-behineko demokrazia aldi-
txo bat bizi izan genuen, baina hori PSOEk
Espainia NATO n sartzean amaitu zen”.

«
Telebistaren bitartez errealitateari
buruzko halako ikuspegi bideratu
eta okerra jaso dezakegu
»

Telebistari buruzko halako ira-
kurketa politikoa egiten amaitu
dudanez, gogora datozkit kazeta-
ritza zinezko bizibide egin zuen
Ryszard Kapuscinski, eta haren
gogoeta: “Zer bonbardatzen ote
dute NATOko hegazkinak Jugos-
lavian? Telebistako instalazioak.
Horra beste froga bat boterea par-
lamentutik eta gobernuetatik tele-
bista eraikinetara lekualdatu dela
erakusteko”.

Argi dago, onerako zein txarre-
rako, intelektualak arreta handiz erreparatu
behar diola gure gizartea ongien ezaugarri-
tzen eta islatzen duen telebistari. Baina Bene-
dettiren ipuineko haurra ere etorri zait gogo-
ra, oraindik salan baitago Osvaldo errukarria,
eta haren ama ere azkenean oroitu denez,
egongelara tximistotsean joan eta hantxe
topatu du ttikia, esna, begiak iragarkietatik
bartzertu gabe, eta amaren ohera joateko
gomendioari haurren eskaria gailendu zaio:
telebistan lehenago agertu den emakumeak
“lantzana” esan bide dio, eta haren zain dago
orain Osvaldo, xalo, alai, itxaropentsu, berri-
ro ere “lantzana” noiz esango ote dion. ■